

## Bestelako Xedapenak

### OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

1473

AGINDUA, 2011ko otsailaren 24koa, Osasun eta Kontsumoko sailburuarena, Vitoria-Gasteizko farmazia-eskualdean farmazia-bulego bat sortzeko prozedurari hasiera eman zaiola iragartzen duena eta farmazia horren titulartasuna lortzeko merezimenduak baloratzeko batzordeko kideak izendatzen dituena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ordenazio Farmazeutikoari buruzko ekainaren 17ko 11/1994 Legearen 34.1 artikuluan ezartzen denez, farmazia-bulego berriak zabaltzeko deialdia edo, hala bada, deialdi hori bidezko ez dela aditzera ematen duen iragarpena urte bakoitzeko lehen seihilekoan egingo da, biztanleen udal-errola berrikustetik ateratako datuak izan ondoren.

Hori guztia betetzeko, 2010eko maiatzaren 31ko Aginduan iragarri zenez (2010eko ekainaren 25eko EHAA), bidezkoa zen farmazia-bulego berri bat irekitzea Vitoria-Gasteizko farmazia-eskualdean. Baina, une hartan, ezin zen zehaztu non egongo zen kokatuta farmazia-bulego hori. Hori dela eta, aipatu deialdia kokaleku posibleari buruzko zalantzak erabat argitu arte ez egitea zuzenagotzat eta geroko interesdunentzat mesedegarriagotzat jo zen.

Horrela bada, farmazia-eskualde berean farmazia-bulego berri bat jartzeko 2009ko irailaren 11ko Aginduaren bidez hasitako prozedura burututa, farmazia-bulego berria zein osasun-eremutan kokatu ahal izango den zehaztuta dago.

Bestalde, egoki da, beraz, eskabidea egin dutenen merezimenduak baloratzeko batzordea osatuko duten kideak izendatzea, EAEko Farmazialarien Kontseiluak, Farmazialarien Enpresa Elkarteek eta Farmazialari Arduradunen, Ondokoen, Ordezkoen eta Jardungabeen Elkarteek egindako proposamenak jaso ondoren. Hala ezarrita dago ekainaren 27ko 338/1995 Dekretuaren 3. artikuluan (338/1995 Dekretua, farmazia-bulegoak sortu, lekuz aldatu, itxi eta jardunean jartzeko prozedurak arautzekoa; otsailaren 3ko 24/2004 Dekretuaz aldatua).

Horiek horrela, hau

## Otras Disposiciones

### DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO

1473

ORDEN de 24 de febrero de 2011, del Consejero de Sanidad y Consumo, por la que se anuncia el inicio del procedimiento para la creación de una nueva oficina de farmacia en la Zona Farmacéutica Vitoria-Gasteiz y se nombran miembros de la Comisión de valoración de méritos para el acceso a la titularidad de dicha botica.

El artículo 34.1 de la Ley 11/1994, de 17 de junio, de Ordenación Farmacéutica de la Comunidad Autónoma del País Vasco, establece que la convocatoria para la creación de nuevas oficinas de farmacia, o en su caso el anuncio sobre la no procedencia, deberá realizarse durante el primer semestre del año, una vez conocidos los datos de la revisión de los padrones municipales de habitantes.

En cumplimiento de dichos términos, la Orden de 31 de mayo de 2010 (BOPV de 25 de junio de 2010) anunció la procedencia de instalar una nueva oficina de farmacia en la zona farmacéutica Vitoria-Gasteiz, si bien no podía determinarse en ese momento su posible ubicación. Por esta razón, se estimó más ajustado a derecho y más favorable para los futuros interesados que la convocatoria del procedimiento para dicha creación no se realizara hasta tanto la duda relativa a la ubicación no quedara definitivamente despejada.

Pues bien, culminado el procedimiento iniciado mediante Orden de 11 de septiembre de 2009 para la creación de una oficina de farmacia en la misma zona farmacéutica, se conocen ya cuáles son las zonas de salud en las que podrá quedar instalada la nueva oficina de farmacia.

Por otra parte y de conformidad con lo previsto en el artículo 3 del Decreto 338/1995, de 27 de junio, por el que se regulan los procedimientos de creación, traslado, cierre y funcionamiento de las oficinas de farmacia, modificado por Decreto 24/2004, de 3 de febrero, procede nombrar a los miembros de la Comisión de Valoración encargada de evaluar los méritos de los solicitantes, una vez recibidas las propuestas del Consejo de Farmacéuticos del País Vasco, de las Asociaciones Empresariales de Farmacéuticos y de las Asociaciones de Farmacéuticos Regentes, Adjuntos, Sustitutos y sin Ejercicio.

Por todo ello,

## EBATZI DUT:

**Lehenengoa.**– Vitoria-Gasteizko farmazia-  
eskualdean farmazia-bulego bat sortzeko deialdia  
egitea, otsailaren 3ko 24/2004 Dekretuaren bidez  
aldatutako ekainaren 27ko 338/1995 Dekretuak, far-  
maziak sortu, lekuz aldatu, itxi eta jardunean jartzeko  
prozedurak arautzen dituenak, ezarritakoari jarraituz.

11/1994 Legearen 13. artikuluan ezarritako irizpi-  
deekin bat, iragarritako farmazia-bulegoa honako hiru  
osasun-eremu hauetakoren batean kokatu beharko da:

- 1.1.02: Aranbizkarra.
- 1.1.04: Santa Luzia.
- 1.1.09: Lakua-Arriaga.

Farmazia-bulegoaren titulartasuna lortzeko eska-  
bideak aurkezteko epea, agindu hau Euskal herriko  
Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamun-  
etik aurrera, hilabetekoa izango da.

Aipatu eskabideak ekainaren 27ko 338/1995 De-  
kretuaren 2. artikuluan aurreikusitako agiriak erantsi-  
ta aurkeztu beharko dira, 24/2004 Dekretuak eman-  
dako idazkeran.

4/1999 Legeak aldatutako Herri Administrazioen  
Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura  
Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4  
artikuluan ezarritakoez gain, eskabideak honako hel-  
bide hauetan aurkeztu ahalko dira:

Osasun eta Kontsumo Saila.

Donostia kalea, 1

01010 Vitoria-Gasteiz

Osasun eta Kontsumo Saileko Lurralde Zuzendari-  
tza, Arabakoa:

Olagibel kalea 38

01010 Vitoria-Gasteiz

Osasun eta Kontsumo Saileko Lurralde Zuzendari-  
tza, Gipuzkoakoa:

Antso Jakitunaren kalea 35

20010 Donostia-San Sebastián

Osasun eta Kontsumo Saileko Lurralde Zuzendari-  
tza, Bizkaikoa:

Recalde zumarkalea 39.

48008 Bilbao

**Bigarrena.**– Deitutako farmazia-bulegoaren titu-  
lartasuna lortzeko, honako hauek izendatzea merezi-  
menduak baloratzeko batzordeko kide:

Lehendakaria:

## RESUELVO:

**Primero.**– Convocar la creación de una nueva  
oficina de farmacia en la Zona Farmacéutica Vitoria-  
Gasteiz, con arreglo a lo establecido en el Decreto  
338/1995, de 27 de junio, por el que se regulan los  
procedimientos de creación, traslado, cierre y funcio-  
namiento de las oficinas de farmacia, modificado por  
Decreto 24/2004, de 3 de febrero.

De conformidad con los criterios establecidos en  
el artículo 13 de la Ley 11/1994, la oficina de far-  
macia convocada deberá ubicarse en una de las tres  
Zonas de Salud siguientes:

- 1.1.02: Aranbizkarra.
- 1.1.04: Santa Lucia.
- 1.1.09: Lakua-Arriaga.

El plazo de presentación de solicitudes para el ac-  
ceso a la titularidad de la oficina de farmacia convo-  
cada será de un mes a contar desde el día siguiente al  
de la publicación de la presente Orden en el Boletín  
Oficial del País Vasco.

Dichas solicitudes deberán presentarse acompaña-  
das de la documentación prevista en el artículo 2 del  
Decreto 338/1995, de 27 de junio, en la redacción  
dada por el Decreto 24/2004.

Las direcciones en las que podrán presentarse son,  
sin perjuicio de las contempladas en el artículo 38.4  
de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen  
Jurídico de las Administraciones Públicas y del Proce-  
dimiento Administrativo Común, modificada por Ley  
4/1999, las siguientes:

Departamento de Sanidad y Consumo

c/ Donostia-San Sebastián, 1

01010 Vitoria-Gasteiz

Dirección Territorial del Departamento de Sanidad  
y Consumo en Álava

c/ Olaguibel, 38

01004 Vitoria-Gasteiz

Dirección Territorial del Departamento de Sanidad  
y Consumo en Gipuzkoa

c/ Sancho el Sabio, 35

20010 Donostia-San Sebastián

Dirección Territorial del Departamento de Sanidad  
y Consumo en Bizkaia

c/ Alameda de Recalde, 39

48008 Bilbao

**Segundo.**– Nombrar miembros de la Comisión  
de Valoración de méritos para el acceso a la titu-  
laridad de la oficina de farmacia que se convoca a las  
siguientes personas:

Presidente:

Titularra: Mercedes Goñi Senosiain andrea.

Ordezkoa: Belén Elorrieta Gabella andrea.

1. batzordekidea:

Titularra: Milagros López de Ocariz López de Munain andrea.

Ordezkoa: Antonio del Barrio Linares jauna.

2. batzordekidea:

Titularra: Maitena Pérez Gabiola andrea.

Ordezkoa: Ricardo López-Lanchares Rubio jauna.

3. batzordekidea:

Titularra: María Ángeles Arbaizar Herrero.

Ordezkoa: Mónica Martínez Santos.

4. batzordekidea:

Titularra: Teresa Fernández de Castro Agirrezabal andrea.

Ordezkoa: Asunción Celigueta Crespo.

5. batzordekidea eta idazkaria:

Titularra: María Heras Burzaco andrea.

Ordezkoa: Begoña Domínguez Alvarez.

**Hirugarrena.**– Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean izango du eragina.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko otsailaren 24a.

Osasun eta Kontsumoko sailburua,  
JAVIER RAFAEL BENGEO RENTERÍA.

Titular: D.<sup>a</sup> Mercedes Goñi Senosiain.

Suplente: D.<sup>a</sup> Belén Elorrieta Gabella.

Vocal 1.º:

Titular: D.<sup>a</sup> Milagros López de Ocariz López de Munain.

Suplente: D. Antonio del Barrio Linares.

Vocal 2.º:

Titular: D.<sup>a</sup> Maitena Pérez Gabiola.

Suplente: D. Ricardo López-Lanchares Rubio.

Vocal 3.º:

Titular: D.<sup>a</sup> María Ángeles Arbaizar Herrero.

Suplente: D.<sup>a</sup> Mónica Martínez Santos.

Vocal 4.º:

Titular: D.<sup>a</sup> Teresa Fernández de Castro Aguirrezabal.

Suplente: D.<sup>a</sup> Asunción Celigueta Crespo.

Vocal 5.º y Secretario:

Titular: D.<sup>a</sup> María Heras Burzaco.

Suplente: D.<sup>a</sup> Begoña Domínguez Alvarez.

**Tercero.**– La presente Orden surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 24 de febrero de 2011.

El Consejero de Sanidad y Consumo,  
JAVIER RAFAEL BENGEO RENTERÍA.